

UDAN BAI >> ARTZAINITZA

Urbia, artzainen aisiaileku

Goiko larretan daude oraindik artzainak beren artaldeekin, lana oporrekin nahastuz. Baina zerk du pisu gehiago? Nola bizi dira artzainak han?

JOSEBA ANTSUTEGIETXARTE
Urbia

Legazpi eta Ordiziako gazta lehiaketa famatuak ate-joka izanik, azken prestaketetan murgilduta izan zitezkeen susmoz Altzaniako Partzoneriara abiatu ginen. Beste azokaasko izaten dira, baina jakina da arraunlariek denboraldia irail hasieran jokatzen duten bezala, artzainek ere urtea hil honetan boro-biltzen dutela. Nolako da hango giroa?

Gipuzkoako hegoaldean diren herri-larreetara ailegatzeko eratako bat Arabakoa da. Araiatik aurrera joanda «petroloetara» iritsi, autoa laga eta tipi-tapa bidea markatuta dagoen tokitik joaten da.

Aizkorriko mendikate ikusgarriantza, arnasestuka, pauso ari-nean gindoazela, Jexux-urritzeko makila zeraman-elkartu zitzaigun itaunketa eginez; erantzuteko, nora begiratu jakin egin behar!

Mendi hauetan abere asko bizi dira, zorionez; makina bat kalekumek ordaindu izan dugu parkeetan antzekoa ikusteagatik. Giza-kien eskura dauden artean, behorak, behiak txahalekin, txerriak, ahuntzak antxumeeekin eta ardiak ikusi genituen. Guztientzako zegoen begirada bat: bizkarrera, atzealdera, brotxakaden kolore eta marka ezberdinetara...

Horrela jakin genuen elkartu zitzaiguna, gutxienez, ganaduzalea zela. Pinu, ote, urki, garo eta abere artetik ibilita mokadua egin ondoren, gure muturren aurrean hasi zen satorra zulotik lurra ateraz tontortxoak egiten, sekula tokatu ez zitzaigun kasualitate polita bezain amorrutzkoa bidelagun artzainarentzat; animalia kaltegarria akabatzeke prestatu bazen ere, ez zuen ezer lortu. Marmarka, gero arte esanez, ospa egin zuen.

Bata dela, bestea dela, kontua da bide ondoan dagoen eskorta batetara heldu ginenean, han zegoen artalde jakin baten zaraten artean bee kaskarreko arkumetxo jaio berri bat aurkitu genuela berri eman behar zela.

Berriro bidean ginela, patsetan, Urbiantz gindoazen. Beste nor-



Artzainak garbitze eta mozte lanak egiten. JOSEBA ANTSUTEGIETXARTE

baitekin topo egingo genuelakoan geunden.

Behean genuen helburua betetzeko bi ordu pasatu ziren, txabletan ginen, baina orain artzainekin egoteko irrikan izan eta, inor ageri ez! Bagenekien udako eginbeharren artean siesta ere sartzen dela, baina bestelako susmoa hartzen genuen, bizileku askotatik teila-tua mugitzearainoko zurrungak entzuten ziren. Joxek moztutako su-

tako egurretara gerturatuz, itzalean zeuden animaliek begiratzen zituzten, bazuten hango gertaeren berri; ezpainak ia itxita, salatari izateko ez zeuden han.

Kamamilen paretik, Txantxan-gorriren baratzaigarro bezain pronto dagoen txabola elegantean mendiko autoen motorrak entzun genituen; gerturatu, eta Jexux; pagopean zegoen eskorta haretara zihozela esan ziguten. Jaioberriarena

esan ahala, sortutako tokira lau gurgipen gainean ipurdikoka eta balantzaka beraiekin gindoazen.

Jaioberriaren osasuna ona zela baieztatu ondoren, itxuran lana zegoen. Batetik herrenak sendatu zituzten; horretarako, lehenengo, modeloen paseen antzera begiztatu egin behar dira; bigarrenik, harrrapatu, eta azkenik, hankaz gora jarrita apatxak sendatu. Bestetik, atzealdeak zikinak zituztenak ere atzeman eta guraizeekin ile kakaztuak moztuz garbituta askatu. Errapeak handituz arabera arabera umatzeko aurrera datozenak bereizi...

Tartean, nahasian, artaldekoak ez zirenak zenbatzen zituzten, akastuna eta pikandeak; Juanjo isilik zebilen.

Ane neskatila txakurrarekin jolasten zen bitartean, Maria Angelsek nire susmoak argitu ordez pentsuen garestitzeaz, arkumeen antzinako prezioa eta kontsumitzaileek izango ditugun garestitze beldurgarriaz jabetu ninduen.

Hirurek lana bukatu zutenean, askarian, elkarri adar joka hasi zirenean zeharka gertakariak zenbait izpi jaso zituen; itxura ona zuen istorioak.

Ardi apainak larrera eramateko garaia heldu zenean, neskatoa, gezurra badirudi ere, ziztu batean prestatu zen. Latxa arrazakoan atzean jarrita, nagusien aginduek primeran betetzen zituen, eta, gainera, txakurrari agindu ere bai. Guztiak gustura joan ginen eguzkia ezkutatzan ari zen aldera; belarra berdea egoteaz gain, abuztuko euriaz berritzen ari da.

A zer ikuspegia! Gailurrak, lizarak, errekatxoak, animalia mor-doa, eta gaztagile gehiago! Atagotirekin duarik ez zegoen, bezpe-



Abelburuz beteta egoten da sasoi honetan Urbia. JOSEBA ANTSUTEGIETXARTE

ran parranda bikaina egin zuten. Agertu zirenak berrietsuagoak ziren, protagonismoari uko egiten ez ziotenak eta berriketarako listo: Tontorrenean lagunarte bikaina elkartuta, giro alaiari aritu ziren. Noski! Biharamunean eguraldi ederra egin arren, siesta egin behar!

Gakoa agerian geratzen ari zen, musaldiak eta bestelako festak baino zerbait gehiago izaten zela lan eskasarekin nahasia. Oraingoan, Olaberrikoen antolaketa zela medio Euskal Herriko bertsolari trebeenetakoekin, trikitilari eta sukaldari ezagunekin bat eginik izan ziren. Nahiko purudun bertso, pandero kaskarin, irrintzi, barre eta txutxu-mutxu izan

Arraunlarien antzera, artzainek sasoi honetan borobiltzen dute urtea, gazta lehiaketekin

Gatzagi naturala ez duten gaztak saltzen direnez, ezinbestekoa da haien kalitatea bermatzea